

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Webaren bidez zerbitzu automatizatu bat konbinatzea aukeratuko dugu bezeroek eskaerak egin ditzaten denda fisiko beharrik gabe.

Bezeroarekin arreta pertsonalizatu bat edukitzeko, harremana telefono zenbaki baten bidez eta e-mail bidez egingo dugu bezeroen galderari erantzuteko.

Bezeroak nola lortu:

Bezeroak lortzeko gure burua promozionatuko dugu instagram bidez. Kamiseta batzuen zozketa egingo dugu eta bertan parte hartu ahal izango dute, gure argitalpena gustatu eta haien istorioen bidez partekatuz.



Bezeroak mantentzeko:

Bezeroak gure proiektuarekin lotuta mantentzeko, eskaera egiterakoan kontu bat sortu beharko du bere posta elektronikoarekin produktuaren bidalketa jarraitu ahal izateko, gurekin harremanetan jarri... etab. eskaintza edo deskontua dugunean bere emailera informazioa bidaliko zaio eta bere lehenengo erosketan % 10eko deskontua bidaliko zaio hurrengo erosketarako eta bere zorionetan %20-eko deskontua, modu honetan eguneratuta egotea eta erosketak berriak egitea animatzea da bilatzen duguna.

